

**Giza Eskubideren Aldarrikapenak nazismoa izan zuen kontuan baina zein artikulua urratu zituen Espainiako faxismoak?**

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

**1.- Edukia zehaztu:**

Giza eskubideak zer diren eta aitortu eta onartu zitezkeen izandako borroka. Eskubide eta betebeharrak publikoak ezagutuko ditugu, baita emakumeen eskubideak. Era berean, giza eskubideak betetzen ez dituzten egoerak aztertuko ditugu.

Kurtso bukaeran eta gaur egungo mundua aztertu ondoren hainbat galdera planteatzen dira hausnarketak egiteko; horretaz gain, testu osagarriak, irudiak eta bideoak ulerterrezagoak izateko. **Giza Eskubideren Aldarrikapenak nazismoa izan zuen kontuan baina zein artikulua urratu zituen Espainiako faxismoak?** Galdera erantzuteko.

Eskaintako materialak erabiltzeaz gain bere kabuz beste batzua aurkitzea lortu beharko dute.

Hausnarketa kritikoa bideratzeko jarduerak, taldekakoak planteatu ditut .

**2.- Testuingurua azaldu:**

BALIABIDEAK:

Ordenagailuen armairua.

Testu liburua eta koadernoak.

Bideoak:

[www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com) testigantza.

Ariel Dulitzkyri egindako irratia elkarrizketa

<http://www.eitb.com/es/audios/detalle/1517278/charlamos-ariel-dulitzky/>

NBErendokumentua <http://www.ohchr.org/SP/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=13800&LangID=S>

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Irudiak, argazkiak

ERANSKINAK:

### 1. GIZA ESKUBIDEEN HISTORIA LABURRA

Patrizioak Erroman esklaboek amestu ere ezin zituzten eskubideen jabeak ziren. Erdi Aroan, bestalde, subiranoek mirabeak ez zituen eskubide eta pribilegioak zituzten. Guztiontzako eskubideen aldeko lehenengo pausoak izan ziren Ingalaterran 1628an, Frantziako Iraultzan 1789an eta 1791ko Konstituzioan eta XVIII. mendearen bukaeran, Ipar Amerikako Deklarazioan. Dena dela, pertsonaren eskubideen onarpena 1. Mundu-Gerra bukatzean izan zen. Versaillesko Hitzarmenak sorturiko Nazioen Elkarteak, gerran parte hartu zuten estatuak bildu zituen, 1919an, eta mundu osoan errespetatu behar ziren eskubideak ezarri zituzten. 2. Mundu- Gerra bukatzean San Franciscoko Hitzaldiak bultzatua Giza Eskubideen Batzordea sortu zen, 1945ean, Nazio Batuen Elkartean integratua. Giza Eskubideen Batzordeak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren zirriborroa idatzi zuen. Parisen, 1948an, zirriborro hori onartu zen eta Giza Eskubideen Deklarazioa adostu zuen zortzi abstentzioekin.

### 2. ZER DA GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA?

Sinatu edota berretsi duten herrientzat ez da loteslea, intentzioen adierazpena besterik ez da. Nazio Batuetako estatu batzarkideak ez zeuden Deklarazio hori sinatzera beharturik, nahiz eta NBEko partaide izateak Deklarazioaren printzipioak onartzea dakarren.

Deklarazio horrek 30 artikulua ditu, honela sailka daitezkeenak

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

### MULTZOKA:

1. Multzoa: Askatasunaren eskubideak (esklabutzaren, torturaren, edonolako atxilotzearen, nazionalitate eta jabetzaren gabetasun injustuaren kontrakoak; pentsamendu- kontzientzia- erlijio- iritzi-adierazpen,- informazioa, biltzeko eta elkartzeko askatasunaren aldekoak).
  2. Multzoa: Eskubide prozesalak eta politikoak (auzitegi independentearen, errugabetasun- presuntzioaren, sufragio pertsonalaren eta unibertsalaren, eta herriaren partaidetasun librearen aldekoak).
  3. Multzoa: Eskubide Sozialak (lanerako, gizarte segurantzarako, ordainsari justurako, hezkuntzarako eta sindikaltze librerako eskubideak dira. Bestalde, bermatzen dute ordena soziala eta nazioartekoa ; komunitatearen bizitza kulturala libreki parte hartzekoaren aldekoak dira eta langabezia eta gaixotasunaren aurkako babes ezaren kontrakoak).
- Deklarazioak balio juridikoa ez zuenez eta gobernuen gehiegikeriak ekidin ezin zituenez, NBEren Asanblada Nagusiak, Giza Eskubideen komisiolari Deklarazioaren 30 artikulua biltzen zituzten bi itun idazteko mandatua eman zion 1951n . Zergatik? Paktuak sinatzen zituzten estatuak juridikoki lotuta geratuko zirelako.

### 3. ZER DIRA ITUNAK?

Nazioarteko Zuzenbidean erabiltzen diren hitz hauek aurkitzen ditugu:

- KONBENTZIOA, KOMENIOA, ITUNA:

Hitz baliokideak dira horiek, estatu subiranoen arteko akordio edo hitzarmenak- juridikoki lotesleak- izendatzeko balio dutenak.

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

- **PROTOKOLOA:**

Akordio formala da, juridikoki loteslea eta, orokorki, beste hitzarmen edo akordio baten osagarria.

- **SINADURA:**

Estatu baten behin-behineko erabakiaren froga da, lotuta kontsideratua izan baino lehenagokoa.

- **BERRONESPENA:**

Akordio edo hitzarmen baten konfirmazioa da, estatu subiranoak erabakia eta juridikoki loteslea.

Itunak, beraz, Deklarazioak edo Hitzarmenak baino maila altuagoa dauka. Aipaturiko bi itunak idazteko 15 urte behar izan ziren eta 1966ko abenduaren 10ean NBERen Asanblada Nagusiak onartu zituen.

KONBENTZIOAK, KOMENIOAK EDO ITUNAK Gutxienez 35 estatuk berresten dituztenean bakarrik jartzen dira indarrean . Horregatik,-ESKUBIDE POLITIKO ETA ZIBILEN -NAZIOARTEKO ITUNA 1976ko urtarrilaren 17a arte ez zen abian jarri. Beste ituna -ESKUBIDE EKONOMIKO, SOZIAL ETA KULTURALENA- eta AUKERAPEKO PROTOKOLOA, berriz, 1976ko martxoaren 23an jarri ziren indarrean.

Azter ditzagun Itunak banan-banan:

**LEHENENGOA:**

ESKUBIDE POLITIKO ETA ZIBILEN NAZIOARTEKO ITUNAK bizitzeko eskubidea bermatzen du; tortura eta zigor edo tratu txarrak edo iraingarriak debekatzen ditu; esklabutza eta gatibu-lanak debekatzen ditu; nahierarako atxilotze eta bahimenduak debekatzen ditu; preso oro gizalegez tratatua izango dela eta heriotza zigorra jaso duen edonork indultua edo

## PROIEKTUAREN AURKEZPENEA

zigorraren ordezkapena eskatzeko eskubidea duela ezartzen du. Pertsona oro berdina dira justiziaren aurrean; bizitza pribatua, familia, etxebizitza edo gutunetan legem- kontra sartzea debekatzen ditu; pentsamenduaren, kontzientziaren eta erlijio askatasuna bermatzen du; edozein diskriminazio kontrako defentsa bermatzen du. Itun horrek, salbuespenak onartzen ditu; dena dela, badira absolututzat jotzen diren zenbait eskubide eta debekuak inoiz indargabetu ezin direnak: bizitzeko eskubidea; torturak edota tratatu txarrak edo iraingarriak eragiteko debekua; esklabutza eta morrontzaren debekua; legearen aurrean pertsonatzat kontsideratzeko eskubidea eta iritzi-erlijio- eta kontzientzia-askatasunerako eskubidea. Arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio edo sorburu sozialarengatik ez da sekula bereizketarik onartuko.

### BIGARRENGOA:

ESKUBIDE EKONOMIKO, SOZIAL ETA KULTURALEN NAZIOARTEKO ITUNAK honako eskubideak ezartzen ditu: lanaren bidez lortutako bizi-maila egokia, gizarte-segurantza, giza eta osasun-segurantza, sindikatuak sortzeko eta grebak egiteko, kultura bizitzan parte hartzeko, heziketa jasotzeko eta atsedenez gozatzeko .

#### 4. Europako kontseilua:

Europako kontseiluak giza eskubideak babesteko lehenengo sistema ezarri zuen 1950ean Erroman, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Konbentzioa sinatuz. Konbentzio hori sinatu duten estatuko hiritarrek giza eskubideen bortxaketen salaketak aurkez ditzakete Estrasburgon dauden erakundeen aurrean. Salaketak eragina izateko, eskatzaileak agortu behar izan ditu bere estatuan posible diren aukera guztiak, Tribunal Gorena Espainiako estatuan adibidez. Konbentzioak eskaerak ikertzeko bi komisio eratu ditu: Giza Eskubideen Europako Komisia eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia. Bietan, kideak diren estatuen partaide bana dago.

5. Giza eskubideak:

OINARRIZKOAK

• 1. Artikulua

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dut.

• 2. Artikulua

Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik. Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituena.

• 7. Artikulua

Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babes izateko eskubidea. Denek dute Aldarrikapen hau hausten duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria horren eragileen aurka babes berbera izateko eskubidea.

ZIBILAK ETA POLITIKOAK

• 3. Artikulua

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

- 4. Artikulua

Inor ez da izango besteren esklabo edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklabo salerosketa oro.

- 5. Artikulua

Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

- 6. Artikulua

Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitortzeko eskubidea.

- 8. Artikulua

Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarrizko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurtso eraginkorra jartzeko eskubidea.

- 9. Artikulua

Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

- 10. Artikulua

Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikeriari gabean jendaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitzeko, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertzeko.

- 11. Artikulua

1. Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean.

Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio.

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

2. Egintzak edo behar-uzteak izandakoan, herrialdeko edo nazioarteko legeriaren arabera delitu ez baziren, ezingo da inor kondenatu. Delitua egitean ezargarri den zigorra baino larriagorik ere ezingo zaio jarri.

- 12. Artikulua

Herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere. Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Normahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babesaren izateko eskubidea.

- 13. Artikulua

1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.

2. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

- 14. Artikulua

1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesaren bilatu eta izateko eskubidea.

2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzi-bideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta irizpideen aurkako egintzak direla-eta ere.

- 15. Artikulua

1. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.

2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta.

- 16. Artikulua

Gizonek eta emakumeek, ezkon-adinetik aurrera, ezkontzeko eta familia aratzeko eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatiko inolako mugarik gabe; eta, ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere.



## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

2. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.

3. Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du.

- 17. Artikulua

1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.

2. Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko.

- 18. Artikulua

Pertsona orok pentsamendu-kontzientzia eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, jardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

- 19. Artikulua

Gizabanako guztiek dute iritzi eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta nolana hiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

- 20. Artikulua

1. Nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea.

2. Inor ezingo da behartu elkarte bateko kide izatera.

- 21. Artikulua

1. Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeratutako ordezkarien bitartez.

2. Pertsona orok du berdintasunez norbere herrialdeko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.

3. Herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria; borondate hori aldian-aldian egingo

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeok bozketa orokor eta berdinez eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez.

### EKONOMIKOAK ETA SOZIALAK:

- 22. Artikulua

Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantzaren izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuak izatekoa.

- 23. Artikulua

Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzeko, lan-baldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa.

2. Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasotzeko eskubidea.

3. Lanean ari denak bidezko lan-saria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Horretarako aski ez bada lansaria, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da.

4. Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea.

- 24. Artikulua

Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa.

- 25. Artikulua

1. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku sorospena eta gizarte-

## PROIEKTUAREN AURKEZPENEA

zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere.

2. Amek eta hurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, sena emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.

- 26. Artikulua

Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goi mailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.

2. Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen iharduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan.

### KULTURALAK:

#### 27. Artikulua

1. Pertsona orok du eskubidea elkartzeko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko. 2. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egile diren pertsona guztiek dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea.

- 28. Artikulua

Pertsona guztiei dagokien eskubidea da, Aldarrikapen honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte mailako eta nazioarteko ordena ezar dadin.

- 29. Artikulua

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

1. Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra.

2. Pertsona orok, gainontzeko herritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko legez ezar daitezzen mugak baino ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan.

3. Eskubide eta askatasun hauetaz ezingo da inor baliatu Nazio Batuen helburu eta irizpideen aurka.

- 30. Artikulua

Aldarrikapen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo ihardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik.

### **3.- Balizko proiektuen zerrenda osa ezazu:**

Ordenagailuen armairua: informazioa lortu eta aurkezpena osatzeko.

Testu liburua eta koadernoak: gatazkak erreparatu ditzaten eta informazioa lor dezaten .

Bideoak eta grabazioak: informazio orokorra, egoera bereziak e.a. ezagutzeko eta jarrerak aztertzeko.

Testigantzak: herriko edo inguruko pertsonak garaiei buruz kontaktzen dutena ezagutzeko.

ERANSKINAK: irakasleak espreski modu "formalagoan" proposatutako materiala osatzen du. Ikasleak denbora hobe kudea dezan.

### **4.- Proiektuaren konponbideak eman edo produktuak defini itzazu:**

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Giza eskubideak zein diren ezagutu ondoren ( **5.- Proiektua doi ezazu: 1. )**

Espainiako faxismoak giza eskubideen urraketa sistematikoa egin zuela

izango da irteera bakarra.

Eskubide desberdinen urraketak aztertuko dituzte taldeak aukeratzen duten

momentua edo egoeraren arabera ( **5.- Proiektua doi ezazu: 2. )** .

Ikasleak kurtsoan aztertutako gatazkak ezagunak dira eta kontzeptu

gehienak ere.

### **5.- Proiektua doi ezazu:**

1. Giza eskubideak zer diren . Eskubide eta betebeharrak publikoak ezagutuko ditugu, baita emakumeen eskubideak.
2. Giza eskubideak betetzen ez dituzten egoerak aztertuko ditugu. Kurtso bukaeran eta gaur egungo mundua aztertu ondoren, hainbat galdera eta egoera planteatzen dira hausnarketak egiteko.
3. Eskaintako materialak erabiltzeaz gain bere kabuz beste batzu aurkitzea lortu beharko dute.
4. Hausnarketa kritikoa bideratuko dute jarduerak.

### **6.- Egitekoa zehaz ezazu:**

Datozen lau egunetan ondoren daukazuen galdera **Giza Eskubideren Aldarrikapenak nazismoa izan zuen kontuan baina, zein artikulua urratu zituen Espainiako faxismoak?** eratzun behar duzue. Lana taldeka egingo duzue, launaka. Erantzuteko hainbat baliabide eskaintzen zaizkizue baina trebeak zarete beste batzu aurkitzeko.

Gainera zuen emaitzak talde aurrean azalduko dituzue, eta horretarako saio bat edo bi erabiliko ditugu.

Aurretik , ausnarketa egiteko beste galdera hauek erantzutea komeni zaizue:

- . Giza Eskubideak Betidanik hartu al dira kontutan?
- . Zein dira OINARRIZKO GIZA ESKUBIDEAK ? Zergatik?

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

. Zein eskubide urratu zituen Nazismoak ?

. Betebeharrak eskatzen al dute? Nori? Nola dago egun gatazka?

Argentinako kereila.

. ( Kontutan izan gaur ere urraketak gertatzen direla : Sirian, Afganistanen, Parot doktrinak e.a. )

Aurkezpenerako taldeka galdera nagusia erantzungo duzue. Power Point bat eginez; horretarako testuak, irudiak, bideoak, testigantzak e.a. erabiliko dituzue.

### **7.- Ikasketa prozesua isla dezazu:**

4. DBHko programazioa jarraituz ebaluatzerakoan ondoko irizpide hauek hartuko dira kontutan :

- Azalpenen eta kontzeptuen argitasuna.
- Erlazionatzeko gaitasuna.
- Erantzun ordenatua egituratzea.
- Ezagupen maila.
- Terminologiaren erabilera zuzena.
- Galdetutakoari erantzutea.
- Idazkeraren zuzentasuna (ortografia, gramatika, morfosintasia...) eta heldutasuna (Txukuntasuna ere ) kontuan izango dira.
- Ezarritako epean entregatu beharko da.
- Lan hauen aurkezpena egiten denean ahoskera kontuan hartuko da.

### JARRERA:

Baloratuko da eta amaieran ebaluatu egingo da, gainditutzat emateko, ezinbestekoa izango da ikasleak gaitasun hau bereganatua izatea. Ondoko atal hauek neurtuko dira: Parte hartzea, materiala ekartzea, lanak egitea, arauak errespetatzea, errespetuz hitz egitea eta jardutea ikaskideekin, materialekin, puntualtasuna, eta orokorrean, behar bezala egotea.

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA